



**JAKINARAZPENA: ESKALADA GUNE
LIBREETAN, KATALOGATUTAKO HEGAZTI
BIKOTEA UMATZEN DUENEAN, JARRAITU
BEHARREKO IRIZIPIDEAK**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko Landa Garapeneko departamentuak eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak elkarlanean dihardugu Gipuzkoako eskalada guneetan espezie mehatxatuen garapenean sor daitezkeen eragozpenak ekiditeko.

Irizpide nagusi bezala espezien babesa erabilera publikoaren gainetik ezartzen den arren, debekuan baino erregulazioan oinarritutako kudeaketa aurrera eraman nahi da bi erakundeen aldetik.

Gipuzkoako eskalada gune guztien erregulazioa urtero argitaratzen den "Gipuzkoako Eskalada Erroldan" zehazten da. Erregulazio horretan, eskalada guneak hiru mailatan banatzen dira: urte guztian eskalada debekatua duten guneak (gune gorriak), urteko sasoiaren arabera eskalada baimendua edo debekatua dutenak (gune horiak) eta urte guztian zehar eskalatu daitezkeen tokiak (gune berdeak).

Hala eta guztiz ere, erregulazio orokor horretatik kanpo, tokian tokiko erregulazio edo debekuak planteatu behar izaten dira, han hemenka babestutako espezieren bat agertzen denean aldeztatik izendatutako eskalada libreko gune batean.

Kasu hauetan, horrela jokatzea erabakitzen da:

- Katalogatutako hegazti espezie bikote bat, ESKALADA LIBREKO (berdea) gune batean, umatzen ari dela jakin bezain pronto, gune hori behin behineko babesa jasoko du. Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa Animalia eta Zerbitzutik, eta egoera bertatik bertara aztertuta, irizpideak emango ditu babes eremuaren zabalera eta bestelako zehastasunak definitzeko.

**NOTIFICACION: CRITERIOS A SEGUIR EN
LAS ZONAS LIBRES DE ESCALADA
CUANDO CRIE PAREJA DE AVES
CATALOGADAS**

El departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, y la Federación Guipuzcoana de Montaña colaboramos para evitar las molestias que las zonas de escalada de Gipuzkoa puedan producir en el normal desarrollo de las especies amenazadas.

Aunque como criterio principal se establece la protección de las especies por encima del uso público, se pretende llevar a cabo una gestión más basada en la regulación que en la prohibición por parte de ambas instituciones.

La regulación de todas las zonas de escalada de Gipuzkoa se concreta en el "censo de Escalada de Gipuzkoa", que se publica anualmente. En esta regulación, las zonas de escalada se dividen en tres niveles: zonas con escalada prohibida todo el año (zonas rojas), zonas con escalada permitida o prohibida según la temporada del año (zonas amarillas) y zonas escalables a lo largo de todo el año (zonas verdes).

Sin embargo, al margen de esta regulación general, deben plantearse regulaciones o prohibiciones particulares, cuando aparece alguna especie protegida en una zona de escalada previamente catalogada como libre.

En los siguientes casos, se decide actuar de la siguiente manera:

- En cuanto se tenga conocimiento de que, en una zona de escalada libre (verde), está criando una pareja de aves catalogadas, se limitará la escalada de manera provisional. Desde el Servicio de Fauna y Flora de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y analizando la situación sobre el terreno, se definirán la anchura y otros parámetros de la zona de protección.

- Debekua, besterik adierazi ezean, **uztailak 31ean** amaitutzat joko da.

- La prohibición, salvo indicación en contrario, se dará por finalizada el 31 de julio.

DONOSTIA, 2020ko urriaren 19an

TEKNIKARIA,



Aitor Lekuona



VºBº-JEFE DE SERVICIO DE FAUNA Y FLORA SILVESTRE.-